

Epailaren 18ko 6/1988 Legea, Foruzko Herri-Legea zati baten aldatzekoa

Euskal Autonomia Erkidegoko Xedapen Orokorrak

Lehendakaritza

Euskadiko hiritar guztiei zera jakin erazten zaie: Eusko Legebiltzarrak, Foruzko Herri-Legea zati batean aldatzeari buruzko 6/1988 Legea onartu duela. Ondorioz, Euskadiko hiritar, partikular eta agintari guztiei, Lege horri men egiteko eta men eginerazteko agintzen diet.

Gasteiz, 1988.eko Martxoak 28.

Lehendakaria,

JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

ZIOEN ADIERAZPENA

Euskal Herriko Autonomia-Estatutuko 10.5 atalak, Konstituzioko 149, 1.8 atalari eta erabaki gehigarrietako lehenengoari datxekiela, Autonomia Elkarteari, honek bere-bere izan duen idatzizko eta aintzinatikako herri-alorreko foru-legepideak osatu, eguneratu eta aldatzeko agintepideak ematen dizkio.

Herri-alorreko foruzko legepidetza hori eguneratzeko, osabideratzeko eta aldatzeko, herri-alorreko erakunde ezberdinen erapidetza eta sortarauen sorburuei buruzko ikerkuntza eta hausnarketa-bideak egin, legepidetza hori gaur egungo gizarterako eta indarra izango duteneko lurralde-eremurako egokitu beharra dago; lan horretan Eusko Legebiltzarra lehenengo aldi Bizkaiko foru-legepidetzarekikoak egiten hasia bada ere, gaiaren korapilotsua dela oraindik luzerako lana izango bait da.

Lege honen aldi-egokitasuna bidezko egiten duten bakarrak ez dira Bizkaiko zuzenbidea, 1959garrenetik hona bederen, aurkitzen deneko bere horretantxe ego; nezko eta gaurkotasunik gabeko egoera, ez eta bizkaitarrek zenbait gaitan, hona nola, ezkontideen ekonomia-jaurpidea aldatzeko askatasunarekikoan edo oinordekotarako seme-alaben berdinketa egitearekikoan, gainontzeko euskaldunen eretzean berez bereizkeriazkoak diren oztopoak kentzeko egiten duten gero eta haundiagoa den eskea ere. Guzti hori eraberriketari beste gabe ekiteko nahiko zuripide izanik ere, ba dira orain-oraingoak izan eta hori ez atzeratzera behartzeko xehapenak eta, hori, atzerapena zeharbidezko epai-erabakien bidez gauzatu dadin galerazteko.

Presako eta aldi-egokitasunezko arrazoi horiek egiten dute beharrezko lege hau, honen xedea ezkondu aurretiko nahiz ondorengo ezkontza-ituneak egiteko

askatasunakekiko eta oinordekotzatarako ezkontzatikako eta ezkontzaz kanpoko seme-alaben berdintasunarekiko oinarri-irizpideak finkatzea delarik, salbuespenei buruzko gaur egungo araupeketari bere horretan eutsiz, eta osabideratzeko, eguneratzeko eta aldatzeko gaur egun aztergai diren Bizkaiko Foru-zuzenbideko gainontzeko alderdiak arriskuan jarri gabe.

Lehenengo atala.- Ezkontideen ekonomia jaurpidea ezkontideek euren ezkontza aurretik nahiz ondoren egindako ezkontza-ituneetan askatasunez erabaki dezatena izango da.

Horren ezean, eta ondasunen jaurpidearekiko itunerik ez izanez gero, indarrean dauden foruzko legeetan esaten den eran eta baldintzetan, ondasunen foruzko adierazpen jaurpidepean egindakotzat joko da ezkontza.

Izakizun baten nahiz bestean, ezkontideek eurek elkar hartuta ezkontza-ituneen bidez aldatu ahal izango da ezkontideen ekonomia jaurpidea.

2. Atala.- Oinordekotzarako seme-alaben berdintasuna finkatzen da, haiek nahiz ezkontzatikakoak nahiz ezkontzatik kanpokoak izan.

Berdinketa honek ez du salbuespenen alorrean gaur egun indarrean dagoen araupeketa hartzen ez eta ikutzen ere.

BALIOGABETZEZKO ERABAKIA

Lege hau indarrean jartzean, hemen agin-dutakoaren aurkako diren arau guztiak baliogabetuta eta indarririk gabe geratuko dira.

Epailaren 18ko 6/1988 LEGEA, Foruzko Herri-Legea zati baten aldatzekoa. (Hutsen zuzenketa)

Apirilaren 12ko Euskal Herriko Aldizkari Ofizialeko 70. alean argitaratutako aipatu Legeko euskarazko testuan hutsak egin direla ohartuta, horri dagozkion zuzenketak egiten dira honen ondoren:

Honako hau dioerean: «ondasunen foruzko adierazpenjaurpidepean», honako hau esan behar du: «elkarren jabetzapeko foruzko ondasun-jaurpidepean». Honako hau dioenean: «salbuespenen», honako hau esan behar du: «gorde beharrekoen».